



# ZALDIAK ETA ZALDUNAK

Materiala: Txotxa, makila, harriak...

Jokatzeko era:

Jokalariak bikoteka banatuko dira. Bikote horiek borobil bat osatuko dute.

Bikotekideak bat aurrean eta bestea atzean kokatuko dira, zutik.

Bikote bakoitzak erdian dagoen txotxa, makilatxo edo harria lortu behar du jolas honetan.

Bikoteak borobilaren erdian dauden txotxak, makilak edo harriak baino bat gehiago izango dira (horrela, ezer gabe geratuko diren bikoteak kanporatuz joango dira, azkenean bat gelditu arte).

Jokalariak kokatu ondoren aginduaren zain egongo dira.

"Zaldunak gora" agindua entzundakoan, bikotean atzean kokatuta dagoena (zalduna) aurrekoaren (zaldia) gainera igoko da.

"Zaldunak behera" agindua

entzundakoan, zaldunek jaitsi eta borobilaren inguruan buelta bat eman behar dute, de eskuin aldera.

Zaldiak ez dira mugituko.

Zalduna, bere zaldiaren parera iritsitakoan, honen hanka artetik pasa eta borobilaren erdian dauden txotxak, makila... horietako bat eskuratzen saiatuko da.

Buelta bakoitzean trukatu daitezke zaldiak eta zaldunak.

